

➤ Irakurri testua.

TXAKURTXO HERRENA



Egun batean Ane eta bere amak, txakurtxo bat aurkitu zuten kalean.

- Hanka bat gaizki dauka - esan zuen Anek.

- Bai, apurtuta dauka. Albaitariarengana eramango dugu - erantzun zion amak.

Albaitariak erradiografia bat egin zion txakurraren hankari. Gero hanka igeltsuaz estali zion.



Amak albaitariari kontsulta ordaindu eta etxera itzuli ziren. Etxean kartoizko kaxa batean ohetxo bat egin zioten txakurtxoari.

Anek eta amak "Lagun" izena jarri zioten. Jaten eman, ilea eskubilatu eta mimo askorekin zaindu zuten txakurtxoa.

